

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROL SAILA

**Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko ekainaren 29an hartutako erabakiaren laburpena; bertan onartzen baitira ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntzeko udaleko Hezkuntza Zerbitzuko laguntzen deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak. 2018-2019 ikasturtea**

BDNS (identifikatzailea): 408170

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke.

#### **Lehen. Onuradunak**

Vitoria-Gasteizko ikastetxeak izango dira laguntzen hartzaileak, zehazki, Derrigorrezko Lehen Hezkuntzan irakaskuntza gauzatzen dutenak. Hala, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei laguntza psikopedagogikoa emateko erabiliko dute, betiere Kultura, Hezkuntza eta Kirol sailak eta Hezkuntza Zerbitzuak onartzen badu, ikastetxeek aurkezten dituzten eskaerekin eta txostenekin bat etorritik.

#### **Bigarrena. Helburua**

Diru-laguntzen deialdi honen xedea hau da: 2018-2019 ikasturtean Vitoria-Gasteizko ikastetxeei laguntza ekonomikoa ematea Derrigorrezko Lehen Hezkuntzan matrikulatuta dauden, eta ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntza psikopedagogiko hori eskuratzeko aukera izan dezaten.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko ekainaren 29an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

160.222,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Eskaerak eta agiriak aurkezteko epea oinarri hauen deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratu, eta hurrengo egunetik aurrera irekiko da, 2018ko irailaren 28ra arte, azken hori barne.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 5a

*Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**ESTIBALIZ CANTO LLORENTE**